

AKTA BATZAR NAGUSIA 2026

DATA: 2026KO OTSAILAREN 22A

LEKUA:

AURREZ AURRE: Ibaiondoko Gizarte Etxea, Gasteiz, Araba.

BIDE TELEMATIKOA: ZOOM

HASIERA ORDUA: Lehen deialdia 10:00 Bigarren deialdia 10:15 Hasiera ofiziala: 10:18

AMAIERA ORDUA: 13:56

Batzarrean aurrez aurre parte hartuko duten pertsonen aurreikuspena:

1. Úrsula Merino (Gobernu Batzordea) (Bertan)
2. Carlos Juan (Gobernu Batzordea) (Bertan)
3. Eider Badiola (Gobernu Batzordea) (Bertan)
4. Natalia Gisselle Ceán (Gobernu Batzordea) (Botoa Maite Martinezen esku utzi du)
5. Sara Martínez de Egidua (Gobernu Batzordea) (Bertan)
6. Maite Martínez (Gobernu Batzordea) (Bertan)
7. Miriam Aguilar (Bertan)
8. An Casas (Bertan)
9. María Mateos (Bertan)
10. Rakel Juarez (Bertan)
11. Aintxane Bengoa (Bertan)
12. Laura Tejedor (Bertan)
13. Elena Dominguez (Bertan)
14. Claudia Abasolo (Bertan)
15. Ana María Pachón (Bertan)

14 parte hartzaile daude guztira eta Natalia Ceanen boto delegazioa.

Beraz, hasieran 15 boto aukera daude.

Zoom bidez parte hartzen duten Elkargokideak:

1. Irene Velasco. (Bertan)
2. Jon Lopetegui. (Ez dago bertan, botoa María Mateosen esku utzi du)
3. Marta García (Bertan)
4. Erika Salagre (Ez dago bertan, botoa Ana M. Pachonen esku utzi du)
5. Eva María Sáez.(Bertan)
6. Alba Pérez. (Bertan)
7. Selene Vélez (Bertan). Saioa lehenago utziko duela adierazten du
8. Henar Menéndez. (Bertan)
9. Leire de Diego (Ez dago bertan, botoa Rakel Juarez en esku utzi du)
10. Tania Golpe (Ez dago bertan, botoa Sara Martínez de Egiduan utzi du)
11. Maialen Pérez (Bertan)
12. Nagore Salazar (Ez dago bertan, botoa Maialen Perez en utzi du)
13. María Victoria García. (Bertan)
14. Leire López. (Bertan)
15. Miren Valverde. (Bertan)
16. Mireia Puertas. (Bertan)
17. Kathrin Walter. (Bertan)
18. Ruth Esteban. (Bertan)
19. Susana Almazan. (Bertan)
20. Janire (Bertan) (Ez zegoen aurreikusitako zerrendan)

Beraz, 15 pertsona bertan egonda eta 5 boto-delegazio izanik, guztira 20 boto aukera daude.

1. Stefania Massaro (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
2. Juan Sebastián Romero (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
3. Leire Nos (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
4. Iria Cortiñas (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
5. Eneko Gutiérrez (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
6. Andrea Rodríguez (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
7. Leire Flores (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.
8. Lucía Suarez (Ez dago bertan) Ez du botoa delegatzen.

I. BLOKEA

1. Ongi etorria eta parte-hartzaileen berrespena. Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena.

Maitek, presidenteak, 2026ko ohiko Batzarra irekitzen du eta bai aurrez aurre bai bide telematikoaren bidez dauden pertsonak egiaztatzen du.

2. Aurreko Batzarreko aktaren berrikuspena eta, hala badagokio, onarpena (2025).

Aurreko akta webgunean egon da urte osoan zehar dagokion atalean. Akta erakusten da eta onarpena eskatzen da. Ez da inolako eragozpenik aurkezten eta **akta ONARTZEN DA.**

3. 2025eko Memoriaren aurkezpena eta 2025eko kontuen onarpena.

2025eko urteko memoria aldeztetik bide telematikoaren bidez bidali da, eta berriro aurkezten da bertaratutakoek ikusi eta iradokizunak egin ahal izateko. Eiderren (idazkaritza) eta Carlosen (liburuzaina) hasiera Batzordean azaltzen da, 2025eko memorian ez agertzearen arrazoia argitzeko (2026an gehitu dira).

Iradokizunak eta eragozpenak galdetzen dira memoriari buruz. Ez da inolako eragozpenik jasotzen eta **2025eko memoria ONARTZEN DA.**

4. Etole-ren egungo egoera: Batzordeei eta Zuzendaritza Batzordearen lankidetzari buruzko informazioa.

Bertaratutakoei batzordeetan parte hartzera gonbidatzen zaie. CGCTOko batzordea sortzeko egungo prozesua azaltzen da.

- *Formakuntza Batzordea.*

Formakuntza batzordetik garatzen ari den konpetentzia digitaleko prestakuntza azaltzen da. Rakelek eta Anak adierazten dute antolamendua konplexua dela eta arrakastatsua izatea espero dutela. Erakundeen lankidetzaren beharra azpimarratzen dute.

- *Lehen mailako arreta eta arreta komunitarioko Batzordea.*

Eskatutakoaren ondoren aurkezteko beharrezkoa den dokumentu bat prestatzen ari dela komentatzen da.

- *Osasun Mentaleko Batzordea (hasierako fasean).*

Whatsapp taldea sortuta dagoela jakinarazten da. 5 parte-hartzaile daude. Norbaitek ea parte hartu nahi duen galdetzen da.

- *Etole lankidetzataldea.*

Talde honen existentzia aipatzen da eta bertan parte hartzera animatzen da.

- *Etorkizuneko batzordeak:*

Batzorde Deontologikoa sortu behar dela jakinarazten da. Momentuz, zuzendaritzako 4 pertsonak eta aholkularitza juridikoko abokatuak osatu behar duten batzordea da (estatutuetan adierazitakoaren arabera).

Halaber, Haur, Nerabe eta Arreta Goiztiarreko Batzordea sortzeko dago. Gutxienez 4 pertsonak osatu behar dutela jakinarazten da.

Beste batzorde bat ere aipatzen da, aldeztu aurre egon zena baina gaur egun ez dagoena: Intrusismoaren Aurkako Batzordea. Bi pertsona interesdunekin batera berriro sortzeko interesa dagoela adierazten da.

Azkenik, Mendekotasun-egoeran eta desgaitasunean dauden pertsona nagusien Batzordea aipatzen da. Berriro sortzearen eta ordezkaritza izatearen garrantzia azpimarratzen da.

2025eko uztailaren 12an aurkeztutako komisiorei eta inkestari buruzko dokumentuan zuzendaritza batzordeak Euskadira iritsi berriei edo elkargokide berriei laguntza emateko Batzorde bat sortzeko aukera proposatzen du.

- ETOLeren barruan gida edo erreferentziazko pertsona baten beharra adierazten da, Euskadiko Terapia Okupazionalaren egoera ezagutzen laguntzeko. Dagoeneko interesa duten bi persona daude. Bide telematikoan konektatutak dauden elkargokideak azaldu dute lehen eginkizun hori lurralde-ordezkariek betetzen zutela; horietako bat **Miriam Aguilar** izan zen (aurrez aurre), eta batzar honetan parte hartzeko interesa duela adierazi du. Gaur egun, lan hori Natalia administrazio-laguntzaileak egiten du; beraz, komenigarria litzateke komisio hau ahalik eta lasterren eratzea.

· *Euskara Batzordea:*

Pertsona batzuek Euskara Batzorde bat sortzea proposatu dute. Argitalpenetan atzerapenak egoten dira itzulpenak egin ditzaketen pertsonen faltagatik; horregatik, batzorde bat sortzea proposatzen da.

Itzulpen ofizialei buruz galdetu dute. Aurreko urteetako memoriak kanpoko empresa batekin itzuli direlari buruz berri ematen da. Estatutuek ezartzen duten hizkuntza-berdintasunean webgunean argitaratuta ez zeudelako. Adierazi da batzordeak komunikatuak, kartelak, bloga eta antzekoak lantzeko ardura izango lukeela.

Maialen Perezek (zoom) Unibertsitatearekin eta itzulpengintza ikasten ari diren ikasleekin harremanetan jartzeko aukera proposatzen du, itzulpenak egin ditzaten. Úrsulak adierazi du arazo nagusia denbora dela. Jardueraren berri eman zaio.

Henar Menendezek (zoom) Adimen artifiziala eta itzulpenetarako hainbat aplikazio eta tresna erabiltzea iradokitzen du. Jakinarazi zaio hori dagoeneko egiten ari dela, baina berrikuspenak ere denbora eskatzen duela. Helburua da batzordeak komisioaren babesa izatea eta, horrela, euskarazko komunikazio-edukien sorrera arinagoa eta eraginkorragoa izatea.

· *TO Konektatuak Batzordea:*

Elkargokide askok ez dugula elkar ezagutzen ikusi da; horregatik, batzorde bat sortzea proposatzen da topaketak antolatzeko, elkartu, hitz egin eta elkar aberasteko. Topaketa horiek ofizializatzea eskatzen da.

5. ETOLEko Batzordearen eta elkargokideen arteko informazio bidirekzionala.

- **Osakidetzako RSM arlorako ordezkari eta bozeramaile izango den bokal/koordinatzaile bat bilatzen da.**
- **Osakidetzako RHB arlorako ordezkari eta bozeramaile izango den bokal/koordinatzaile bat bilatzen da.**
- **Hezkuntza arlorako ordezkari eta bozeramaile izango den bokal/koordinatzaile bat bilatzen da.**
- **Ospitale, egoitza eta eguneko zentro pribatuen arlorako ordezkari eta bozeramaile izango den bokal/koordinatzaile bat bilatzen da.**
- **Aldundi eta udalen arlorako (gizarte-ongizatea, gizarte-zerbitzuak, etab.) ordezkari eta bozeramaile izango den bokal/koordinatzaile bat bilatzen da.**

Terapia Okupazionala dagoen eremu desberdinetan ordezkariak eta bokal/koordinatzaile bozeramaileak eskatzen dira. Henarrek (zoom bidez) txantxetan aipatu du parte hartzen ez duten elkargokideek bikoitza ordaindu beharko luketela. Parte-hartze EZAREN aurrean duen frustrazioa adierazi du. Presidenteordeak konfiantza sortzeko ekintzak egitearen garrantzia azpimarratu izan nahi du, elkargokideek Batzordean gehiago inplikatu daitezen. ETOLEn ez parte-hartzearen arrazoiak ezagutzeko inkesta bat egitea proposatzen dute, eta horren bidez Batzordearen lana indartzea.

Maialen Pérez(zoom), zuzendaritza batzordeko kide ohiak, adierazi du Elkargoarekin lankidetzan aritzen diren pertsonen ematen zaien errefortzu positiboa berriro indartzen ari dela ikusten duela.

Aintxanek, aurrez aurre, adierazi du laguntza-batzordeak lan oso ona egingo lukeela zeregin horretan.

ETOLEn bokal/koordinatzaile ordezkariak bilatzeko beharra dagoela jakinarazten da. Pertsona horien zeregina Terapia Okupazionala dagoen eremu desberdinetako egoerari buruzko informazioa jasotzearekin lotuta egongo litzateke. Ondoren, pertsona horiek bokal bihurtuko lirateke.

Ruthek adierazi du gaur egun denbora pixka bat gehiago duela eta errehabilitazioaren arlorako bere burua eskain zezakeela. Interesdunek idazteko proposatzen da.

Adierazten da ordezkari horrek batzarrean eta Kontseiluarekiko harremanean ere parte hartuko lukeela.

Maialenek proposatzen du jartzea OSAKIDETZA ez jartzea, diskriminatzailea izan daitekeelako; arloarekin lotuta egotea, baina ez hainbeste erakundearekin.

Azaldu da azpiatalak arlo bakoitzean egin daitezkeela.

6. Nabarmendu beharreko lankidetzak: Bozketa: ETOLeren kokapen sozial eta politikoa.

- CGCTO.
- SOCINTO.
- Bizkaiko Osasun Foroa.
- Haurtzaroaren Osoko Bilkura.
- Laguntza-produktuen Bankua.
- CIEITO eta CITO.
- Altxor.

ETOLeren kokapen politikoa delegatzeko bozketa egiten da. Batzordeak baimena eskatzen du kokapen hori bere gain hartzeko.

Galdetzen da ea inork duen horren aurkako adierazpenik. Zoom bidez adierazten da beharrezkoa dela bai kasu zehatzak ezagutu beharko lituzketela bai zuzendaritza batzordearen kokapen politikoa ezagutzea. Askotan elkargokideei kontsulta egiteko denbora esz dagoela adierazten da, erabakiak berehalakoak izaten direlako.

Anak (aurrez aurre) adierazi du dena politikoa dela eta parte hartzearen garrantzia azpimarratu du; ideologia politikoa edozein dela ere, elkartzearen eta eztabaidatzearen beharra nabarmendu du.

Maialenek (zoom bidez) aipatu du Eusko Legebiltzarrean, eskuineko alderdi politikoek elkargokidetzak derrigorrezkoa izatea proposatu zutela.

Azkenik, delegazioa onartzen da, baina aldez aurretik elkar ezagutzeko eta harremana estutzeko konpromisoarekin. Bertaratutako pertsonak BAIEZKO botoa ematen dute.

Maialenek (zoom bidez) BAI/EZ kokapenaren beharra proposatzen du.

Atsedenaldiaren ondoren, botoen gardentasuna bermatzeko, bozketa berriro banan-banan egiten da. Bozketa hori egin aurretik, Selene Vélezek bilera uzten du; beraz, guztira 34 boto zenbatzen dira.

Guztira honako emaitzak zenbatzen dira:

29 BAIEZKO BOTOAK

5 ABSTENTZIO

II.BLOKEA

7. 2026ko Proiektuaren aurkezpenaren eta gastuen aurreikuspenaren bistaratzea.

Puntu nagusien azalpen laburrak:

1. LEGE SAILA

- Lege Sailari buruzko informazioa ematen da.

2. UNIBERTSITATEA

- Euskadin Terapia Okupazionalerako Gradua ezartzeko egiten ari den ekintzaren berri ematen da (CNDEUTOrekin egindako bilera, etab.). Etxetik galdetzen da ea badakigun Kantabriako Unibertsitatean Terapia Okupazionala ikasteko aukera egongo dela. Jakinarazten da praktiketan ikasleak izango dituztela. ETOLEk 2025eko abenduaren 10ean bidalitako ohar baten bidez honi buruz berri eman zuen.

3. CRM + WEB IRISGARritasuna: Caronte proiektuaren A edo B aukeraren bozketa

- 2025ean izan diren gastuak eta horien arrazoiak azalduz, gastuen aurreikuspena laburki aurkezten da. Bankuarekin egindako akordioak ere aipatzen dira, gastuak murrizteko helburuarekin. Azken aurreikuspena Ezohiko Batzar Orokorrean aurkeztuko dela jakinarazten da.
- CRMa azaltzen da, eta Anak (aurrez aurre) digitalizatzen jarraitzearen eta elkargokideen kudeaketa erraztearen garrantzia azpimarratzen du. Era berean, datu pertsonalen babesaren garrantzia aipatzen da, eta CRM honek hori hobeto bermatzen laguntzen duela esaten da.
- WEBaren irisgarritasuna eta egingo diren aldaketak azaltzen dira. Caronte proiektuaren bideoa erakusten da, eta bi aukera aurkezten dira: bat merkeagoa eta bestea garestiagoa.
- Batzordetik Caronte proiektuaren bozketa Ezohiko Batzar Orokorrean egitea proposatzen da, dokumentuak bidali ondoren (bi proposamenen PDFak, A eta B), eta Batzordeak egokien jotzen duen aukeraren

arrazoia azalduz. Ruth, Maialen eta Leirek proposatzen dute bozketa hori Ezohiko Batzar Orokorrean bertan egitea. ETOLEk kostu txikiagoko aukera baloratzen duela egokiena bezala azaltzen da.

- Bestalde, web orriaren itzulpenari buruz ahal den neurrian euskaratu dela azaldu da, baina sortzean kontuan hartu ez ziren zenbait elementu ezin dira itzuli, txantiloiak ez duelako aukera ematen. Zoometik galdetzen da euskalduntzea nola baloratzen den, eta erantzuten da bai weba bai CRM-a euskalduntzen ari garela.

4. BULEGO-ALDAKETA (LOKAL EROSKETA): hipoteka eta lokalaren kostuaren bozketa

- ETOLEren egungo beharrak azaltzen dira: espazio handiagoa eta elkargokideentzako erreferentziatzeko gune bat izatea. Hainbat lokal bisitatu dira, prezioak baloratu dira eta bankuarekin hipoteka aukerari buruzko elkarrizketak eduki dira.
- Batzordetik gaur egun hipoteka bat kontratatzeke aukera ez dela bideragarria ikusten jakinarazten da, baina bai beste lokal bat alokatzeko aukera, etorkizuneko jardura guztiak modu egokian garatzeko eta elkargokideen beharrak asetzeko.
- Azkenik, bozketa egiten da ETOLErentzat egoitza berria bilatzen jarraitzea onartzeko. Une honetan, proposatzen da lokal bat alokairuan izatea, ETOLEren aurrekontuaren barruan bideragarria den aukera.

ETOLEREN EGOITZA ALDAKETARAKO LOKAL BERRIAREN BILAKETAREKIN JARRAITZEA ERABAKITZEKO BOZKETAREN EMAITZA:

BAIEZKO GEHIENGO OSOA: 34 BOTO.

5. ENPRESEN FORMAZIOA ETA MARKETINGA (KANPO HARREMANAK)

a. Marketin kanpainarako aurrekontu-tartearen bozketa

- Úrsularen (Presidenteordea) kanpo harremanen eta formakuntzaren proiektua azaltzen da, baita Euskadin Terapia Okupazionalaren profesionalen egoera ere. Hainbat erakundeekin harremanak izatea, Terapia Okupazionala ezagutaraztea eta bestelako helburuak aipatzen

dira. Leturia diputatuarekin izandako bilera ere komentatzen da. Gaur egun aztertzen ari den marketin plana ere jakinarazten da.

- Etxetik CGCTOrekin lankidetzan aritzeko aukera proposatzen da marketin kanpainan. Batzordetik jakinarazten da Kontseiluak eskatu duela elkargoek modu independentean lan egitea, haiek beren lana egiten eta hazten jarrai dezaten.
- **Aintxanek** (aurrez aurre) proposatzen du elkargokideek argazki-bankua sortzea, ondoren erabil ahal izateko. Ssaiake egin dela aipatzen da, baina irudi horiek ez direla egokiak kalitate nahikoa ez dutelako.
- **Maialenek** (zoom bidez) adierazten du gustatuko litzaiokeela Batzar honetan ikusten den informazioa Ezohiko Batzar Orokorrean ere ikusgai egotea.
- Miriamen bideoa erakusten da. Selenek (zoom bidez) adierazten du gustatuko litzaiokeela material guztia eskuragarri izatea bozketa egin ahal izateko. Mirenek (zoom bidez) parte hartzen duten pertsonen sare sozialak eskatu ditu, haiek hobeto ezagutzeko.

b. Batzordetik, adeitasunez, aurrekontu-tartearen bozketa proposatzen da: argazkilaria, booka, argazki-bankua eta edukien sorrera.

Sara Berasalucek (aurrez aurre) bere arte eta argazkilaritza lana aurkezten du:

- Pertsona guztietara egokitutako argazkilaritza.
- “Reflejadas” proiektua: egoera zaurgarrian dauden emakumeekin online tailerrak egiten ditu (Zoom bidezko topaketak eta argazkilaritza parte-hartzailea).

Elkargokideek eskertutak daudela aurkezpenagatik adierazten dute.

Gorabehera: bozketaren atzerapena erabakitzen da, gastuen aurreikuspenaren azken bertsioa aurkeztu ez delako.

c. Batzordetik, adeitasunez, plantillan Formakuntza /kanpo harremanetarako pertsona bat (Úrsula) batzeko bozketa proposatzen da. 2026ko martxotik irailera bitartean lanaldi osoko kontratazioa proposatzen

da. Úrsularen proiektuaren FORMAKUNTZAREN helburua Terapia Okupazionala zabaltzea eta ezagutaraztea dela azaltzen da.

Elkargoari adierazi zaio konplexua dela erakundeek eta profesionalek Pertsonarengan oinarritutako arreta (POA) eskaintzea bermatzea. Horregatik, bai elkargokideak bai beste erakunde batzuk formatzeko beharra ikusten da, Terapia Okupazionalaren helburuak eta eginkizunak hobeto ezagut ditzaten, beste lanbide batzuek ez baitutelako horretarako prestakuntza zahatzik.

(Aldi baterako jardunaldi honen kontratazioaren justifikazioa elkargokideei emango zaie).

6. Bestelakoak:

a. Natalia administrazio-laguntzailea 2026 osoan lanaldi osoan mantentzearen bozketa

Natalia-ren kasua azaldu da, eta 2026an administrazio-laguntzaile bat lanaldi osoan izateko beharra azpimarratu da.

Gorabehera: bozketaren atzerapena erabakitzen da, gastuen aurreikuspenaren azken bertsioa aurkeztu ez delako.

8. Galderak eta eskariak. **Hurrengo ez-ohiko batzarrean puntu hau amaieran jorratuko da, aurkezpen guztiak bukatu ondoren.

Pertsonak proiektuari, egindako lanei eta aurreko egiteko asmo daudenei buruz dituzten zalantzak galdetzeraz gonbidatzen zaie.

Maialenek honako proposamenak egiten ditu:

- Atsedenaldia eta ordutegiak errespetatzea.
- Bozketak unean bertan egitea.
- Bozkatu beharreko gaiei buruz informazio gehiago ematea, aurrez aurrekontuak eta bestelako dokumentazioa bidaliz.
- Aholkua: batzarretarako eta beste gai batzuetarako beste batzordeetako pertsonen laguntza eskatzea.

Alba Pérezek eskerrak ematen ditu eta konfiantza adierazten dio batzorde berriari, baita haren beharra ere azpimarratzen du. Halaber, batzordearen aurka agertu den etsaitasunak eragin dion ezinegona adierazten du.

Batzordetik jakinarazten da ekitaldian zehar bizi izan den ezinegona eta tentsioa, bereziki Zoom bidezko parte-hartzeetan pertsona batzuek egindako aipamenengatik.

Azpimarratzen da hitz egiteko txandak ez direla errespetatu.

Hurrengo Batzarretarako oharrak:

- BOZGORAILU bat behar da, bai zoom bidez bai aurrez aurre dauden pertsonak aurkeztu duten material digitala ondo entzun ahal izan dezaten.
- Zoom bidez konektatzen diren pertsonak NAN bidez identifikatuko dira, batzuek beste izen batzuekin konektatzen direlako eta batzordeko kideek ez dituztelako guztiak ezagutzen.
- Hobetzeko moduak aztertuko dira, eta batzarra baldintza egokiagoetan egiteko beharrezko neurriak hartuko dira.

Batzarreko gorabeherak:

Marta García (zoom bidez) adierazten du joan egin behar dela eta bere botoa delegatzen saiatzen da. Ez zaio onartzen, botoa delegatzeko dokumentuan ezarrita dagoelako batzarra hasi aurretik egin behar dela.